



## KONTSUMO ARDURATSUARI BURUZKO LEHIAKETA

Ekainaren 5ean mundu mailan Ingurumenaren Eguna ospatzen dela aitzaki moduan hartuz eta mundu mailan ere Nazio Batuen Elkarteak babesten duen GAP izeneko programan, Tolosaldeko beste udalerriekin batera parte hartzen ari garela kontuan hartuta, Udalak herritarrei zuzendutako Kontsumo Arduratsuari buruzko Lehiaketa antolatu du.

Lehiaketa honen helburu orokorra herritarrek beraien egunerokotasunean natur baliabideen aurrezpena eta kudeaketa iraunkor baten alde egitea da, izan ere, gure jarduerak aurrera eramateko ezinbestekoa gertatzen zaigu, besteak beste, uraz, energiaz eta elikagaiez baliatzea. Baina, ba al dakizu natur baliabide horiek agortu daitezkeela eta gure kontsumo ohiturek ingurumen nahiz gizarte inpaktu handiak sortzen ditzaketela? Hala nola, hondakinen gehiegizko sorrera, kutsadura (airea, lurzorua, ibaiak, ...), herrialde pobreenetako biztanleengan gizarte bazterketa egoerak sortzea, etab.

### OINARRIAK:

- ✓ Kontsumo arduratsuari buruzko lehiaketa honek, gaur egungo gizartearen kontsumo ohiturekin zerikusia duen honako gaietako bat gutxienez landu beharko du:
  - Garraioa/Mugikortasuna
  - Erosketak eta hondakinak
  - Energia
  - Ura
- ✓ Lehiaketak bi kategoria izango ditu:
  - 1) 12 urtera bitarteko gazteei zuzendutako marrazki lehiaketa
  - 2) Kontakizun motzei buruzko lehiaketa: lehen kategoria 12-16 urteko gazteei zuzendutakoa eta bigarren kategoria 16 urtez gora Adunako biztanle orok parte hartzeko modukoa.
- ✓ Lanak euskaraz aurkeztu beharko dira
- ✓ Parte-hartzeko epea: ekainaren 1etik 8ra bitartean (ekainaren 6 eta 7an izan ezik –udal bulegoak itxita baitaude-)
- ✓ Lanak aurkezteko tokia eta ordutegia: Adunako udaletxeko udal bulegoak, asteleheneetik ostegunera 8:30etatik 17:30etara, eta ostiraletan 8:30etatik 15:00etara.
- ✓ Informazio gehiago behar baduzu, zatoz udaletxera goian aipatutako egun eta orduetan, edo bestela dei ezazu 943-692571 zenbakira. Adunako udal web gunean ere informazio gehigarria topatuko duzu: [www.aduna.net](http://www.aduna.net)

**ANIMATU ETA PARTE HARTU!!!!**